



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

Bermeoko Aritzatxu hondartzako kantinaren eta komunen emakida adminis- tratiboa ematea.

2024ko otsailaren 27ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabaki bidez emakida esleitzeko oinarriak onartu dira. Iragarki honen bidez Bermeoko Aritzatxu hondartzako kantinaren eta komunen erabilera pribatibo eta arrunterako administrazio-emakida esleitzeko deialdia egiten da.

- Erakunde esleitzaila**
 - Erakundea: Bermeoko Udala.
 - Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Idazkaritza Saila.
 - Espediente-zenbakia: IDA_ERA_0124_2023.
- Dokumentazioa eta informazioa lortzea**
 - Bulegoa: Idazkaritza Saila.
 - Helbidea: Irakaskintza, 14-16.
 - Herria eta posta kodea: Bermeo, 48370.
 - Telefonoa: 946179105.
 - Webgunea: www.bermeo.eus
- Lizitazioaren xedea**
 - Mota: Administrazio-emakida.
 - Deskribapena: Erabilera pribatibo eta arruntaren emakida ematea.
 - Iraupena: Erabilera pribatibo eta arruntaren emakidaren iraupena urte batekoa izango da, emakida formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta ezin izango da luzatu.
Urteko epealdia:
 - 2024ko ekainaren 1etik 2024ko irailaren 30era.
 - 2025eko apirilaren 12tik 27ra.
- Izapideak eta prozedura**
 - Tramitazioa: Arrunta.
 - Prozedura: Irekia.
 - Modua: Lehiaketa.
 - Lizitaziorako gutxienerako kanona: 300,00 euro/hileko.
- Bermeak**
 - Behin-behineko bermea: Ez da eskatzen.
 - Behin betiko bermea: 1.814,27 euro (eraikuntzaren balioaren %3a).

**6. Eskaintzak aurkeztea**

- a) Aurkezteko azken eguna: Laneko 15 egun, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatuzaileek bi gutun-azal edo artxibo elektronikotan aurkeztuko dituzte beren proposamenak, modu honetan:
 - A gutun-azalean edo artxibo elektronikoa:
 1. Emakidaduna izateko baldintzak betetzearen zinpeko aitortpena (I. eranskina).
 2. Mantenu eta garbiketa programa.
 3. Elementu eta altzarien proposamena.
 - B gutun-azalean edo artxibo elektronikoa:
 1. Proposamen ekonomikoa (II. eranskina).
 2. Dinamizatzeko plana.
- c) Aurkezteko modua:
 - BERHAZ arreta bulegoa (Ertzilla kalea, 6-8, 48370-Bermeo).
 - Bermeoko kontratugilearen profilean: <https://bermeo.eus/1470.html>
 - Legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

7. Esleipen irizpideak

1. Eskaintza ekonomikoa: 50 puntu.
2. Emakidaren objektu diren espazio eta lokalen mantenu eta garbiketa programa: 25 puntu.
3. Aritzatxuko Hondartza dinamizatzeko plana: 20 puntu.
4. Lehiatzaileak ipiniko dituen elementu eta altzarien itxura eta ergonomia: 5 puntu.

8. Eskaintzak irekitzea

- Erakundea: Kontratazio mahaia.
- Eguna: Bermeoko Udalaren web orrian eta kontratugile profilean adierazitako eguna eta ordua.

Bermeon, 2024ko otsailaren 27an. — Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly